

**CIC biomaGUNEk irudi medikoa aztertzeo teknikak garatzen ditu, iktus-kasuetarako diagnostiko- eta pronostiko-tresna hobekuntzak eginez, RICORS-Ictus sarearen esparruan**

Iktusa da heriotza-eragile nagusia emakumezkoetan, eta bigarrena gizonezkoetan; eta ezgaitasunaren eragile nagusia da gure herrialdean. CIC biomaGUNEren Erresonantzia Magnetiko bidezko Irudia ikerketa-taldea [Iktus-kasuetako Osasun-arloko Emaizte buruzko Ikerketa Kooperatiboko Sare](#)ko kide da (RICORS-Ictus sarea). Ekimena Carlos III.a Osasun Institutuarena da, eta Espainia osoko 23 ikerketa-talde eta 9 talde kliniko ari dira lanean, herrialdean eragin soziosanitario handiena duten gaixotasunei erantzuteko, iktusa izan duten pazienteen prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan hobekuntzak eginez.

Ikertzaile-talde batek ordezkatzen du Euskadi RICORS-Ictus sarean. Talde horren koordinatzailea María del Mar Freijo neurologoa da, Biocruces Bizkaiko Neurologia Baskularreko taldearen zuzendaria; eta taldeko kide dira Institutu horretako errehabilitazio-taldeko kideak (Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean eta Gorkizko Ospitalean dihardutenak), Achucarro-UPV Institutukoak (Achucarro Basque Center for Neuroscience), BCBL Institutukoak (Basque Centre on Cognition Brain and Language) eta CIC biomaGUNEkoak (Biomaterialen Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa).

CIC biomaGUNEko ikertzaile-taldea Pedro Ramos Cabrer Ikerbasque ikerketa-irakasleak zuzentzen du. Proiektu honetan, irudi medikoa aztertzeo teknikak garatzen dihardute, iktus-kasuetarako diagnostiko- eta pronostiko-tresna hobekuntzak eginez. Freijo doktoarekin (IIS Biocruces-Bizkaia), Achucarroko kide Abraham Martín doktoarekin eta BCBLko kide Simona Mancini doktoarekin lankidetzan estuan dihardute, helburutzat harturik iktusa izan duten pazienteen diagnostikorako eta pronostikorako biomarkatzaile berrien garapenean aurrera egitea; bereziki, neuroirudien arloan izan diren aldaketei dagokienez (proiektuaren azken alderdi hori CIC biomaGUNEk gidatzen du).

Urtarrilaren 31n, "RICORS-Ictus sareko Euskadiko taldearen I. bilera" egin zuten Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuaren, eta Aita Mennik ere parte hartu zuen. Bilera horretan, esperientziak eta ekimen berriak partekatu zituzten, eta lan-talde horretako kideen arteko lankidetzak indartu ziren.